




Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria


UNESCO Saria
2002 - 2003

**“GAZTE ETORKINAK
EUSKARARA HURRERATU”
EGITASMOA – 2016**

BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

- 1.1.- ESTATISTIKAK.
- 1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.
- 1.3.- JARRAIPEN BATZORDE BERRIA

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU DEN

- 3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA
- 3.2.- IKASTARO BEREZIAK
- 3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2015” AZPIEGITASMOA
- 3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK
- 3.5.- BALIABIDEAK
- 3.6.- KRONOGRAMA


4.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

5.- GASTUAK ETA DEFIZITA

- I. ERANSKINA: AHIZERen programazioa (GU-GAZTE eta EUKLIDERRAK)
- II. ERANSKINA: Gernikako AEKren txostenak (errefortzurako ikastaroak)
- III. ERANSKINA: GAZTERREN 2015-2016 (urteko txostena)
- IV. ERANSKINA: Gastuen xurigarriak.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoa 2006rako eratzekoan eskuetan genituen estatistikei erreparatu, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean, Euskal Herri osoan gertatu bezala, etorkinen pilaketa Aurreko laupabost urteetako fenomeno zela.

Etorkinak, guztira, 1.718 izan dira 2013ko urtarrileko erroldan (biztanleriaren %10) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentajea % 72,30 dela ateratzen zaigu eta horietatik honako datuak:

- 0-17 urte bitartekoena % 27,83a
- 18-39 urte bitartekoena % 55a


Beraz, eskoletara bideratzekoak heren bat eta erdiak lanean aritzeko adinekoak. Ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen diren adin-tarteak izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Hargatik, etorkin helduei dagokienean euskara ikasteko motibazioa landu behar dugu eta euren pertzeptzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturatzeko. Atal honetan txertatuta ditugu Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana (GuGazte) eta Gazterren egitasmoa.

Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D eredu nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten ausartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartean integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu izan gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jarduera berezi batzuk. Irakaskuntzari begirako atal honetan dihardugu lantzen errefortzuko ikastaroena iraungo urte askotan eta 2012an aintzat hartutako beste bati ekin zitzaion 2013an eta 2014an ere: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa eta inplementazioa).

Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu hiru urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxeak berak hartuko duela egitasmoaren garapenerako ardura, AHIZEREN aholkularitzapean. Hori horrela, "Eusliderrak" metodologiari eutsiz, beste gazte multzo baten eragitea erabaki da aurrean: Gernika Futbol Taldeko kadete mailako bi futbol taldeetan.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.1.- ESTATISTIKAK


IKASLEGO ATZERRITARRA BUSTURIALDEAN / ALUMNADO EXTRANJERO EN BUSTURIALDEA

IKASTETXEAK CENTROS	IKASLEGO ALUMNADO 2009/2010	ETORKINAK INMIGRANTES 2009/2010	IKASLEGOA ALUMNADO 2010/2011	ETORKINAK INMIGRANTES 2010/2011	IKASLEGOA ALUMNADO 2011/2012	ETORKINAK INMIGRANTES 2011/2012	IKASLEGOA ALUMNADO 2012/2013	ETORKINAK INMIGRANTES 2012/2013
CEP ALLENDE	695	43 (6%)	748	56 (7,4%)	747	60 (8%)	743	72 (9,6%)
CEP BARRUTIA	245	3 (1,2%)	276	15 (5,4%)	290	20 (6,8%)	285	16 (5,6%)
IES BARRUTIALDE	238	13 (5,4%)	234	7 (2,9%)	238	13 (5,5%)	268	12 (4,4%)
IES GERNIKA	735	19 (2,5%)	752	18 (2,3%)	772	26 (3,3%)	760	22 (2,8%)
LA MERCED	296	105(35,8%)	303	120 (39%)	301	141 (46,8%)	294	126 (42,7%)
SAN FIDEL	678	45 (6,6%)	693	39 (5,6%)	719	46 (6,3%)	733	55 (7,5%)
SEBER ALTUBE	605	17 (2,8%)	616	7 (1,1%)	655	18 (2,7%)	676	14 (2%)
MONTORRE	45	4 (8,8%)	52	4 (7,6%)	48	10 (20%)	51	7 (13,7%)
MUNDAKA	137	14 (10%)	146	5 (3,4%)	155	7 (4,5%)	139	3 (2,1%)
UCELAY (Busturia)	103	3 (2,9%)	124	2 (1,6%)	123	6 (4,8%)	120	3 (2,5%)
URRETXINDORRA	67	4 (5,9%)	84	5 (5%)	100	8 (8%)	92	8 (8,6%)
PUBLIKOAK	2.265	103(4,5%)	2.416	112 (4,6%)	2.473	150 (6%)	2.458	143 (5,8%)
KONTZERTATUAK	1.579	167 (10%)	1.612	166 (9,9%)	1.675	205 (12,2%)	1.703	195 (11,4%)
OROKORRA/TOTAL	3.844	270 (7%)	4.028	278 (6,9%)	4.148	355 (8,5%)	4.161	338 (8,1%)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

%57,6 ZENTRO KONTZERTATUETAN ETA %42,4 PUBLIKOETAN

Gernika-Lumoko Hasierako Lanbide Prestakuntzako Ikastetxea (Ile-apainketa eta Zurgintza): 33 ikasle (19 atzerritarrak, %57)

Ikasle etorkinak etapaka Busturialdean


IKASLEGO ATZERRITARRA MAILAREN ARABERA/ ALUMNADO EXTRANJERO POR ETAPAS (2011/2012)

	2008/2009	2009/2010	2010/2011	2011/2012	2012/2013	ALDAKETAK
HAUR HEZKUN/INFANTIL	70	64	74	115	104	-11
LEHEN HEZKUNTZA/PRIMARIA	113	118	128	156	161	+5
DBH/SECUNDARIA	71	78	67	76	63	-13
BACHILLERATO	3	3	3	3	5	+2
LANBIDE/FP (Erdi maila/medio)				1	3	+2
LANBIDE/FP (Goiko maila/super)	4	7	5	4	2	-2
OROKORRAK	261	270	278	355	338	-17

Gernika-Lumoko zentroetan 317 ikasle etorkin (matrikula guztien %8,26).



Gernika - Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika - Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

Gure eskualdeari eta udalerriri dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:

- **Berezitasuna.**- Beste udalerrri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, ostera, zentro kontzertatuetan (%57,9) dago pilaketa.
- **Arriskua.**- Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harrizkoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela bi urte hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integrazioarako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak barru. Gorako joera moteldu egin da azken hiru urteetan, 2007-2008koarekin alderatuz.
- **Indargunea.**- Etorkinak matrikulatzen diren erduei erreparatuz, 324tik 284 (%87,65) ikasle D erduan daude; gainerako 40 ikasle etorkinak DBH-ko B erduan ari dira Mertzede ikastetxean.
- Azken ikasturtean eskualdeko zentroetan **matrikulatuta dauden ikasle atzerritarren kopuruak behera egin du**, joan den ikasturtean baino 17 ikasle gutxiago. Murrizketa hau etorkinen helduera moteldu delako dela uste dugu. 2003/2004 ikasturtetik etengabe hazi den ikaslego atzerritarra ikasturte honetan hasi da jaisten lehen aldiz.
- Busturialdeko ikasle atzerritarren %57,6 ikastetxe kontzertatuetan dago (bereziki Mertzeden) eta %42,4 publikoetan. Egoera hau gure eskualdeko berezitasuna da, Euskal Autonomi Erkidegoko datuen arabera, ikasle atzerritarren %75 sare publikoan baitago matrikulatuta. Hala eta guztiz ere, gure eskualdean egoera hau orekatuz doa: 2008/2009 ikasturtean ikasle atzerritarren %66 zentro kontzertatuetan ziren eta gaur egun %57,6 dugu.

ATZERRIKO BIZTANLERIA BUSTURIALDEKO MANKOMUNITATEAN (2014)

1. Atzerriko biztanleriaren eboluzioa, 2014-2015.

	2014ko URTARRILAREN 1ean			2015eko URTARRILAREN 1ean			Aldaketa
	Biztanleria orokorra	Atzerritarrek	%				
ARRATZU	405	15	3,7%	405	14	3,4%	-1
BUSTURIA	1.707	38	2,2%	1.698	43	2,5%	+5
EA	872	38	4,3%	859	41	4,7%	+3
ELANTXOBE	390	2	0,5%	385	4	1%	+2
EREÑO*	251	17	6,7%	257	15	5,8%	-2
ERRIGOITI	522	17	3,2%	508	15	2,9%	-2
FORUA	962	57	5,9%	956	46	4,8%	-11
ARTEAGA	878	47	5,3%	873	40	4,5%	-7
GERNIKA	16.834	1.579	9,3%	16.811	1.580	9,4%	+1
IBARRANGELU	641	9	1,4%	644	8	1,2%	-1
KORTEZUBI	461	21	4,5%	469	18	3,8%	-3
MENDATA	381	8	2,1%	385	10	2,5%	+2
MORGA	418	16	3,8%	425	16	3,7%	-
MUNDAKA	1.906	81	4,2%	1.906	79	4,1%	-2
MURUETA	312	6	1,9%	314	5	1,5%	-1
MUXIKA	1.453	40	2,7%	1.460	36	2,4%	-4
NABARNIZ	240	8	3,3%	238	10	4,2%	+2
SUKARRIETA	357	11	3%	374	16	4,2%	+5
GUZTIRA	28.990	2.010	6,9%	28.967	1.996	6,8%	-14

Iturria: Biztanleen Udal-errola.

- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten 18 udalerrietan **beste herrialde batzuetako 1.996 pertsona daude errolatuta, biztanle guztien %6,8 alegia**. Portzentaje hori Bizkai osoan (2014an %5,9) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (2014an %6,4) daudena baino altuagoa da, baina Estatuan dagoenarekin konpartuz gero (2014an %10,7) baxuagoa da.
- 2) **2014tik 2015era bitartean errolatuta dauden atzerritarren kopurua jaitسي da pixka bat, 2.010 lagun izatetik 1.996 izatera**, hori da **14 lagun gutxiago**. Jaitسيera 2013 eta 2104 urteen artean izandakoa baino askozaz apalagoa da. Aipatutako aldiari, etorkinen kopurua % 7,5 gutxitu zen (163 lagun gutxiago). Oro har, eskualdetik alde egin duten pertsonen dagozkie erregistratutako baja gehienak, beste udalerrira batera joateko edo jatorrizko herrialdera itzultzeko alde egin duten pertsonenak, hain zuzen ere; baina, horrez gain, **kontuan hartu behar da espainiar nazionalitatea gero eta etorkin gehiagok jasotzen dutela, batez ere Latinoamerikatik iritsitakoak, eta, horrenbestez, errolatan ez direla atzerritar gisa ageri**.



- 3) Mankomunitateko hamazortzi herrietan bizi diren **49 atzerritarrek espainar nazionalitatea jaso zuten 2014an**. Haien artean **nazionalitaterik ugariena boliviarra** da. **2013an 89** izan ziren.
- 4) Atzerriko biztanleriaren **%40 Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritakoa da (799 lagun)** eta **Europako Batasunetik etorritako 1.197 biztanleetatik %87,8 errumaniarrak dira**. Honakoak dira nazionalitaterik ugariena: **errumaniarra (1.052 lagun), argentinarra (77), marokoa (63), moldaviarra (57), boliviarra (55), brasildarra (54), sahararra (53) eta portugaldarra (52)**.
- 5) **Gehien handitu diren taldeak Errumaniakoa (43 lagun gehiago) eta Pakistanekoa (12 gehiago)**. **Gehien murriztu direnak portugaldarra (15 lagun gutxiago) eta senegaldarra (12 gutxiago)** izan dira.
- 6) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien **%50** dira.
- 7) Atzerriko biztanleen **%48 18-39 urte bitartekoa da** eta **%18 adin txikikoa**.
- 8) **Gernika-Lumoko udalerrian Mankomunitatean bizi diren atzerritarren % 78 biltzen dira (1.580 lagun)**. Udalerrri honen **biztanleriaren %9,4** beste herrialde batzuetatik dator. Azken hamabi hilabeteotan, erroldatutako etorkinen kopuruak ez du aldaketarik izan (lagun bat gutxiago); 2013 eta 2014 urteetan, berriz, % 7ko jaitsiera izan zuen (126 lagun gutxiago). **Gehien handitu diren** komunitateak **errumaniarra (51 lagun gehiago) eta pakistaniarra (9 gehiago)** izan dira. **Gehien murriztu den taldea brasildarra** da (13 lagun gutxiago).

1.2.- INMIGRAZIO PLANAREKIKO UZTARKETA

2005ean eratu zen I. Inmigratio Plana, 2008an bigarrena eta 2013-2016 eperako hirugarrena. Hiruretan hartu zuen parte Euskara Zerbitzuak eztabaidarako foroetan eta bere ekarpenak ere egin zituen; ekarpen horiek onartuak edo ez izatea baino gure helburu nagusia EBPN/ESEP-ekiko uztarketa eta loturak sendotzea izan da beti eta uste dugu lortu dugula.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak eratu Inmigratio Planean aintzat hartutako ekintzez gain, uztarketa horren frogagarri dira hurrengo koordinazio eta elkarlan guneak:

- Inmigratio teknikariaren parte hartzea Udal Eskola Kontseiluan eta AHIZEK garatzen duen gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren jarraipenean.
- Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZERen Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana.
- Eratu den Jarraipen Batzordean Inmigratio Teknikariaren parte hartzea.
- Mankomunitateak urtero gauzatzen duen Gazterren egitasmoa, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa (eskolan eta familia giroan arazoak dituzten gaztetxoei zuzendua eta parte hartzen dutenen %70 gazte etorkinak dira).

1.3.- JARRAIPEN BATZORDEAREN ERAKETA

Euskararen normalizazioari eta erduen garapenari begira, etorkinen matrikulazioa kontuan hartzeko barietatea dugu. Horrek irakaskuntzan sortzen duen arazoa bultzatuta eta Euskara Zerbitzua ere kezkatuta, 2005ean Udal Eskola Kontseilua bilakatu zen bilgune gai hori aztertzeko horri loturiko ekimenak abian jartzeko (errefortzurako ikastaroak, Ekintza Plana, 2011n Eusliderrak). Urtero bi batzar izaten dira.

2012 urteari begira, Euskara Batzordeak Jarraipen Batzorde bat eratzea erabaki zuen etorri berrien gaineko hausnarketa egin eta “Gernika-Lumoko etorri berrien mapa” osatzeko (jatorria, bizilekua, adina, euren iritziak –guganakoak, ematen zaizkien zerbitzu publikoez, euskarari buruz-, aisia non eta zelan gauzatzen duten,...). Inkesta bat burutzea erabaki zen, emaitzen ezagupenetik egitasmoak egokitzeko datuak izatea helburu. Partaideak: Udal Euskaltegia, AEK euskaltegia, Inmigratio Teknikaria, Hizkuntza Normalizatorako Teknikaria eta Euskara Zinegotzia. Daborduko bost batzar izan ditu.

Aipatu inkestak ez zuen izan arrakasta handirik, 1.400 bidali eta 80 bat besterik ez genituelako jaso. Beraz, tentuz hartu behar ditugu datuak.



2. HELBURUAK

2014an ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) moldatu eta onartu egin zen. Horren ildotik, 2016ko Kudeaketa Planean hurrengo helburuak landu dira egitasmo honi dagokionean:

Helburu estrategikoa: Euskararen transmisioa / ondorengoetaratzea.

Esparrua:

2. Irakaskuntza

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

2.6.1. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa bereziak garatzea

- 2.6.1.1.- DBHko ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

7. Aisia eta kirola

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

- 7.7.1.1.- Etorri berrien integratzeko bideratutako aisialdi programak bideratu (gazte etorkinak euskarara urreratzeko egitasmoa)

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU DIREN



Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobeak: Gazterren egitasmoa.

2008an, gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin genion: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea 2009an, I. Ekintza Plana garatu zen 2010ean eta seigarrenari ekin zaio 2015ean.

2011n aurreikusi gabeko egitasmo bati eutsi genion, sarrera-idatzian aipatua: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa). Eusliderrak proiektua dela-eta esan behar dugu bi urteko ibilbidea ondoren Mertzede ikastetxea bera hasiko dela egitasmoaren garapenerako ardura hartzen, AHIZEren aholkularitzapean.

Hori horrela, “Eusliderrak” metodologiari eutsiz, beste gazte multzo baten eragitea erabaki da aurten, Gernika Futbol Taldeko kadete mailako bi futbol taldetan hain zuzen.

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA

Abian ditugun azpiegitasmoei hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearen, gazte etorkinen munduari buruz 2008an egindako diagnostikoa oinarri, Ekintza Plan bat garatzen da urtero. Hamabi urtetik hogeita lau urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa langai, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2009an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da eta 2016rako berriztatu egin da hitzarmena Ekintza Planaren garapena helburu (**ikus 1. eranskina**)

Euskararen erabilpena areagotzea dela-eta, AHIZE enpresak proposamen bat aurkeztu zion Gernika-Lumoko Udalari 2011ko ekainean, “Eusliderrak” delako egitasmoa. Berau, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egindako ikerketetan oinarritua dugu, giza multzo berezietan aplikatu eta **hizkuntza ohituretan eragiteko metodologia** erabiliz.



Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak AHIZE enpresarekin hausnarketa egin ondoren, egokitzen jo zuen Berrizko Institutuan garatutako **esperientzia pilotuan oinarritu** eta Gernika-Lumon ere DBH mailan aplikatzea, Mertzede ikastetxeko **DBH-ko 3. mailan** hain zuzen. Hautaketaren arrazoiak: ikastetxe txikia, gela oso bat lantzeko aukera eta maila bakoitzeko gela bakarra, B ereduak eta ikasle etorkinen portzentajea ia %50koa zuena. Aurrekoak kontuan hartuta, egitasmoak eraginkortasun handia izan zezakeen erakunde osoan. Gainera, Mertzede ikastetxeko arduradunekin batzartu eta atseginez eutsi zioten aukera horri. Burutu zen, bada, lehenengo esperientzia hori eta, 2015ean, horri jarraipena eman genion.; 2016an, ostera, helburua Mertzede ikastetxea bera prozesuaz jabetzeko ikastaro berezia eskaintzea izan da.

Beraz, Eusliderrak metodologia egokitzen jo eta beste esparru baten aplikatzea adostu da AHIZE-AEK erakundearekin: kirol esparruko gazteengan, hau da, Gernika Futbol taldeko gaztetxoek/kadeteen bi taldeetan.

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora:

"... Erabakia:

- 1).- Berbalagun egitasmoaren barruan, etorkinen atala eratu eta indartu, etorkin gazteak ahal den neurrian aintzat hartuta.*
- 2).- Ikastaroei dagokienean:*
 - Ikasturte osoan antolatu, trimestreka, eta bi talde eratu une bakoitzean:*
 - * Oinarritzkoa edo zero maila.*
 - * Hasierra maila.*
 - * Ordutegia: arraltsaldez (5:00etatik 7:00etara).*
 - * Astean bi egunez.*
 - Sasoi berezietan ikastaro bereziak eratzeko; etorri berriak izan daitezkeen sasoietan batik bat (oporrak, ...).*
 - Hasierra ikastaroa modu egokian gaindituko lukeena, Berbalaguneko etorkinen atalera pasatzea.*
 - Datuak jasotzeko epea: gaurtik aste beterako epean, zentroek datuak ematea (ikasle etorkinen fitxak).*

Udal Euskaltegiko ordezkariak dioenez, ikastaroen helburuak, ordu kopuruak eta abarrak, eskoletan zehaztu beharko lirarteke. Euskaltegiek eurek ezin dezakete soluzioa eman, konponbidea aurkitzen lagundu baino, kontuan hartuta euskaltegien malgutasun falta eta baliabide urriak...."



Ordutik hona, errepikatu egin da esperientzia urtero eta Udal Eskola Kontseiluak egiten dituen batzarretan egiten da iragan ikasturteko hausnarketa eta berrirako egokipena. Hona hemen 2015eko irailaren 15koa:

“Gernikako AEKko ordezkariak 2014-2015 ikasturteko taldeen txostenak banatu eta ikastaroaren balorazio orokorra egin du:

- *Bi talde aritu izan dira; 11 ikasle A1 (hasiera) mailan eta beste 8 B1 mailan (maila aurreratua).*
- *Asistentziari dagokionean, gogotsu aritu izan dira eta asistentzia nahiko ona izan da. Salbuespen bakarraren kasua azpimarratu du.*
- *Aprobetxamenduaren datuak ere txostenetan jaso dira, ikasle bakoitzeko. Beraz, ikastetxe bakoitzak identifikatuko ditu bere ikasleak jarraipena egiteko.*

Inmigrazio teknikariak galdetu du beste ikasturte batzuekin alderatuta zelan garatu den azkena.

AEKko ordezkariak dio ez dela alderik izan asistentzia eta aprobetxamenduari dagokionean eta gauza berezi modura aipatu daitekeela nabarmendu duen ikasle bakarraren jarrera txarra.

Euskara zinegotziak galdetu du ikasleen jarraipena egiteko tutoreekin zer maiztasunarekin izaten den harremana.

AEKko ordezkariak erantzun ez dagoela finkatuta maiztasun bat, baina ikastetxe bakoitzeko kontakturako arduradun bat dago finkatuta eta beharrezko denean izaten direla harremanak.

Hausnarketa egin ondoren, hauxe erabaki da:

- 1).- *Orain arteko eskemari eutsiko zaio (bi talde, A1 hasiera maila eta B1 hobekuntza maila).*
- 2).- *Zentroetako zerrendak jasotzeko epe muga: URRIAK 2. Ikasle bakoitzaren fitxa:*
 - *Izen-abizenak.*
 - *Jatorria eta udalerrira noiz etorria.*
 - *Ikasketa maila eta euskara maila (“0” edo “hobekuntza”)*
 - *Kontakturako eta jarraipenerako telefono zenbaki bat.*
- 2).- *Egunak, bi astean, aurkezpen egunean finkatuko dira. Ordutegia: arratsaldeko 5:00etatik 6:30era. Ikastaroaren ordu kopurua: 60 ordu.*
- 3).- *Ikastaroa San Fidel ikastolan garatuko da (bigarren urtea), 2009-11-05eko bilkuran erabakitakoari jarraituz.”*

Beraz, 2007an finkaturiko ildoari jarraiki, hurrengo ikasturteetan ere bi ikastaro antolatu izan dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarrizkoa edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu). Urtero egiten izan diren udako ikastaroak ezin izan dira burutu azken urteetan, aurrekontu murrizketa bitarteko.



3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2016”

Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako **Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea**, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak.

Beraz, **kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea** adostu dugu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko. Lan esparru interesgarria guretzat, tratatzen dituzten gazteak familia arazoak dituztenak izanik, euretako erdiak etorkinak direlako. Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jo dugu eta horregatik bideratu da diru laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratu eta gauzatu den “Gazterren 2015-2016” (Erreterria auzoan kokatuta dagoen lokaletik Astrara pasatu dira) egitasmoa aurrera ateratzeko (ikus **III. Eranskinean** horri buruzko balantzea).

“**Gazterren 2016**” azpiegitasmoaren **xede taldea**, 2015koari jarraituz, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa izango da, gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituztenentzat. Guztira 25 bat gaztek hartu du parte eta horietatik erdiak, gutxi gora-behera, etorkinak izan dira.

Atal honetan aipamen berezia egin beharra dugu, egitasmo orokor honen baitan dauden azpi egitasmoen artean hezurmamitu den koordinazio-gunea dela eta; Mankomunitateko **Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZ Eren Ekintza Planarekin duen lotura** eta alde bien arteko elkarlana areagotzea izan dugu helburu 2016an.

3.4.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia (HNT1)
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategiko berria oinarri moldatutako 2016ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.

- Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):

- Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
- Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
- Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
- Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.



- **Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
 - Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
 - Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).

- **AEK Euskaltea (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekiten diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.
 - Parte hartzea Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztea, behin-betiko onarpena izatearren.

- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana-2016):**
 - Udalarekin 2009an sinatutako hitzarmena bitarteko, 2016koa egokitu eta gauzatu da (**I. eranskina**).
 - AHIZE-ko teknikaria arduratu azpiegitasmo horren koordinazio eta garapenaz.

- **Gernika Futbol Taldeko koordinatzailea (Eusliderrak egitasmoarekin lotuta):**
 - Kadete taldeekiko zubi lana egin Eusliderrak agitasmoa aplikatzeko.
 - Entrenatzaileen koordinazio gunearekin batzarrak egiteko, alde zuretik informazio lana betetzea.

- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorri berri gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2015-2016):**
 - Kale hezitzaileen zerbitzua bitarteko, etorkinekin aisialdia euskaraz lantzearen egitasmoa (“Gazterren 2015”) burutzeko egitasmoaren ardura izan du.
 - Inmigratio Teknikariaren inplikazioa (Udal Eskola Kontseiluan eta Jarraipen Batzordean)

- **Jarraipen Batzordea** (Udal Euskaltea, AEK euskaltea, Inmigratio Teknikaria, Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria-1 eta Euskara Zinegotzia) eratu



zen duela bi urte Euskara Batzordearen aginduz, inkesta berezi bat egin eta adin desberdinetako etorri berrien pertzeptzioen eta jokabideen berri izateko, burutzen ditugun egitasmoekin asmatzen dugun jakitea helburu.

3.5.- BALIABIDEAK

- Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko lanak **HNT** Teknikariak beteko ditu.
- **Berritzegunearen aldetik**, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneak ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeke daukan mintegia berak zuzendu du).
- **Euskaltegietako zuzendariak** (2), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izan dutenak, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak berauek.
- **Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak**: Inmigratio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- **AHIZE-AEK-k garatuko dituenak:**
 - Ekintza plana koordinatu eta garatzeko teknikaria (astean 8 orduz aritu da). Koordinazio bilerak.
 - “Eusliderrak” egitasmoa garatzeko teknikaria (hiru hilabetekoa lana)

- Diru eta material baliabideak, Euskara Zerbitzuarenak:

- 2016ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoan aintzat hartutako azpiegitasmoak garatzeko (Ekintza plana-GU-GAZTE- Eusliderrak azpiegitasmoa barru-, errefortzurako ikastaroa, Gazterren egitasmoa).
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izan du.



3.6.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	Urtean zeharreko garapena												
	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Ikastaro bereziak													
Batzarrak Esk. Konts. Eta euskaltegiak (jarraipena)													
Metodologia landu (Euskalt. / Berritzegunea)													
Ikastaldeak eratu													
Ikastaroak eman													
Gazterren 2015-2016	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Kale hezitzaileen taldeak dinamizatzea (asteroko ekintzak eta hamabosterik behingo irteera)													
GU-GAZTE Ekintza Plana	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Koord. AHIZE-Eusk Zerbitzua													
Diagnostiko kuantitatiboa													
Udal Eskola Konts (adostu)													
Inkesta ikasleei													
Diagnostiko kualitatiboa													
Gazte foroa eratu													
Matrikulazioaren jarraipena													
Eusliderrak garatzeko	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN	
Hausnarketa / Koord													
Prestaketa (taldeak, materiala, programazioa)													
Dinamizazio saioak													
Ekintza soziala													

4.- BALORAZIO KUANTITABOA ETA KUALITATIBOA

Balorazioa kuantitatiboa

- **Gazte etorkinen diagnostikorako prozesua** betetzerakoan 23 eragilek hartu zuten parte. Horietatik, garrantzitsuenak partaide dira jarraipen bileretan (Inmigrazio teknikaria, Mertzedek ikastetxea,...)

Ekintza Planaren xede taldea, gutxi gora-behera, 230 etorkin gazteena da eta, eragileen inplikazioa bitarteko, 2016ko Ekintza planean partaide izan dira 30 gazte etorkin, xede taldearen % 13,04. Parte hartzeko kanalak hobetu beharra daukagu.

- **Eusliderrak azpiegitasmoa** zuzenean lantzen da 50 gaztetxorekin (futboleko hiru kadete talde) eta eragina du erakundearen parte hartzen duten 200 bat gaztetxorengan. Zeharbidetik, gaztetxo horien gurasoengan ere eragina du, hau da, beste 400 bat pertsona heldu.

- **“Gazterren 2016” azpiegitasmoaren xede taldea** 8-12 urte bitarteko gaztetxoena da (tarte horretan sartzen diren gazte etorkin guztiak 80 bat dira, gutxi gora-behera), baina kontuan hartuz programa hori Gizarte Zerbitzuetako udal elkargotik abiatzen dela familia arazoak (eskolako asistentzia arazoak,...) dituzten gaztetxoei zuzenduta, xede taldea asko murriztu behar dugu. 2016an 16 gazte etorkin integratu dira programa honetan, guztira 26 gaztetxo izanik. Hona hemen datu zehatzak:

	GUZTIRA	BERTOKOAK	ETORKINAK
PARTAIDEAK	26	10	16
MUTILAK	12	6	6
NEKAK	14	4	10

JATORRIA	KOPURUA
ERRUMANIA	8
BOLIVIA	3
JAPON	2
BRASIL	1
PARAGUAI	1
MARRUECOS	1
GUZTIRA	16



- **Ikasle etorkinei errefortzurako ikastaroak.** Ikastaroetarako xede taldea 70 ikaslekoa izan da, DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak, eta ikasturteko ikastaroetan 26 ikaslek hartu dute parte. Beraz, parte hartu du xede taldearen %37,14ak.

Balorazioa kualitatiboa

Gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren kasuan, xede taldea 230 gazteena izanik, eragileen inplikazioa bitarteko eurak jakitun jartzeko ahalegin berezia egin da. Partaide kopurua, ostera, %13,04 baina partaide kopurua ritsi ahal izan dugu eta eratu den Plan Estrategikoaren eraginkortasuna ere horren araberakoa izan da.

“Gazterren 2015-2016” egitasmoa. Guk hemen jaso dezakegun datu baikorra da lantaldean integratutakoetatik batek ere ez duela baja hartu programatik; gaztearen integrazioa bideratuta dagoenean, bai kuadrila baten bitartez edota kultur zein kirol elkarteren baten jarduerarekin bat egiten dutelako, hezitzaileek eurek ematen diote beta programari uzteko.

Prozesu horretan hizkuntza irizpideak landu direla jakinda, integrazioa euskaraz egin dadin lehenengo pausua emateko oinarriak finkatu direla esan dezakegu.

Ikasle etorkinei errefortzurako ikastaroak. AEK euskaltegiak emandako txostenetatik emaitza positiboak atera ditugu, euskara maila hobetzeko helburua neurri handi batean lortu delako (26 ikasleetatik, 13k guztiz lortu dute helburua, erdizka 4k eta ez dute lortu 9k), nahiz eta aurreko urteetako emaitzak baino zerbait apalagoak izan.

Aurrera begirako proposamena

Ikasle etorkinei errefortzua eskaintzeko ikastaroei dagokienean, asko estimatzen da ikastetxeetan, baina murriztu egin da ikasle kopurua. Agian, heziketa prozesuan integratzen diren ikasleak gero eta gutxiago dira adinean sartuak eta txiki-txikitatik hasitakoak hizkuntza bereganatuta dute DBH mailara iritsi orduko. Beraz, beharizana gutxituz joan den arren, mantendu egin behar da eskaintza behar den neurrian.

Esan beharra dago **Gu-gazte** Ekintza Planaren seigarren urtea dela, gazte etorkinak euskararen mundura erakartzea helburu. Gero eta argiago daukagu aipatu Gu-gazte programa aisialdiari loturiko beste programekin hobeto uztartu behar dela:

- **Gazterren** programatik Gu-gazte programara pasatzeko zubiak landu.
- Gu-gazte programa eta Gaztelekuko ikastaroen programa uztartu.



- Urte osoko gazte-programa (batik bat “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa) eta Gu-gazte programa harremanetan jarri, hemendik harako bidea egiteko protokoloak landuz.

Eusliderrak egitasmoari dagokionean, 2016an esparru berri baten aritu gara eta emaitza onak lortuz. Kirol arloak duten eragin nabarmenagatik, datorren urtean hortxe jarraitzeko asmoa dago.

5.- AURREKONTUA

Gastuak

Ikasturtean zehar errefortzurako ikastaroak (AEK euskaltegia)	5.835
Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen egitasmoari dirulaguntza (“Gazterren 2014” azpiegitasmoa, kale hezitzaileen taldeetako etorkinei begirakoa)	1.000
GU-GAZTE, Gazte etorkinei buruzko Ekintza Plana 2016 (Ahize-AEK aholkularitza) Koordinaziorako teknikaria	6.534
Eusliderrak egitasmoa kirol esparruan aplikatzea (AHIZE-AEK)	2.668
GUZTIRA	16.037

Diru sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza	1.467,71
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza	3.429,00
Diru sarrerak guztira	4.896,71

Defizita

Gastuak	16.037,00
Diru sarrerak	4.896,71
Defizita guztira	11.140,29

Gernika-Lumon, 2017ko urtarrilean.

Marisa Aldamizetxebarria
EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA

Bittor Zarrabeitia
HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO TEK.





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



I. ERANSKINA

AHIZEren programazioa (GU-GAZTE eta EUSLIDERRAK – 2016)





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



II. ERANSKINA

Gernikako AEKren txostenak (ikastaro bereziak)





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



III. ERANSKINA

GAZTERREN 2015-2016 (urteko txostena)



IV. ERANSKINA

Gastuen xurigarriak.

